

34. EDIZIOA TORIBIO ECHEVARRIA SARIAK

“Ekintzailtza Berritzaileari Euskadi Sariak”

Oinarriak

Eibarko udalak Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntzako Sailaren eta Bic Gipuzkoaren zuzendaritzapean, “Toribio Echevarria” sarien edizio berri bat sustatu eta babesteari ekin dio, honako erakunde hauen laguntzarekin eta sariekin: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen saileko Ekintzailtzaren, Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako saila, SPRI, Gipuzkoako Bazkundera, Elkargi, APD, Debegesa, Confebask eta ADEGI, CEBEK eta SEA enpresa elkarteak.

Sari honek bultzatu eta aitortu nahi dituen baloreak: ekimena, berrikuntza, ekintzarako gaitasuna, sormenerako ahalmena eta enpresak garatzeko kemena dira berrikuntza teknologikoari arreta berezia ipiniz.

Sari honek oinarrian duen filosofiari jarraituz Euskal Herriko industria-ehunaren berrikuntza-kultura eta modernizazioa garatzeko, sormenaren eta berrikuntza teknologikoaren bidetik doazen ekintza guztiei baita enpresa-errealitate izan litezkeen “asmo” guztiei ere, bideak zabaltzen, laguntzen eta horien aldeko apustu egiten jarraitzen dute Eibarko Udalak eta Bic Gipuzkoak.

1.- Helburuak

- 1.- Enpresa eta asmo berritzaileak sustatu.
- 2.- Ekintzailearen irudia bultzatu eta hedatu.
- 3.- Lana sortzen lagundu.
- 4.- Gure herrian, enpresa edo lantegi berriak ahalbideratu.
- 5.- Berrikuntza teknologikoa enpresan sustatu.

2.- Parte hartzeko baldintzak

“Startupak eta Enpresa ekimenak” Saria

- Startup berritzaileak eta/edo zientifiko-teknologikoak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:
 - Gehienez ere 5 urteko antzintasuna, eratze-datatik.
 - 0,5 M €-tik beherako fakturazioa
 - Hazi-erronda fasean edo venture kapitaleko inbertsioaren lehen txandan egotea.
 - Egoitza soziala eta instalazio operatiboak Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotako edo bertan bizi diren banako edo taldeko ekintzaileak, enpresa-ekimen berrien proiektuak aurkezten dituztenak, batez ere berritzaileak eta/edo zientifiko-teknologikoak.

“Enpresa berritzailea” Saria

- Negozio-unitate berri bat edo enpresa-jarduera berri bat sortzeko fasean dauden izaera teknologikoko enpresa berritzaileak.
- Startup zientifiko-teknologikoak, fakturatzen ari ez badira ere, sozietate-egitura bat dutenak, produktua/zerbitzua heltzeko prozesua eta hurrengo ekitaldietan merkaturatzea bermatuko duena nolabait.
- Egoitza soziala eta instalazio operatiboak Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

Oharra: Edozelan ere, sariaren antolatzaileak, hautagaiak kategoria batean edo bestean sartzeko eskubidea izango duite nahiz eta hautagaiak bestera aurkeztu. Hala ere, aurkeztu diren hautagai guztiei behar bezala adieraziko zaie erabaki hori hartzeko egon diren arrazoiak azalduaz.

Eibarko Udalaren Sari Bereziak

"Eibarko enpresa" saria

- Eibarren jatorria edo/eta kokapena izatea, edo, hala badagokio, saria eman eta gehienez ere urtebeteko epean Eibarren kokatzeko konpromisoa hartzen duen enpresa izatea, gutxienez 2 urterako

"Especializazio estrategikoa" saria

- Eibarko Udalak definitutako eta lagundutako espezializazio estrategikoko arlo batean aurkeztea jarduera : Manufaktura Aurreratua, bereziki mikropreziazio eta robotikaren mekanika, Energia eta Kirola, azken arloari lehentasuna emanez.
- Eibarren jatorria edo/eta kokapena izatea, edo, hala badagokio, saria eman eta gehienez ere urtebeteko epean Eibarren kokatzeko konpromisoa hartzen duen enpresa izatea, gutxienez 2 urterako.

3.- Sariak

"Startupak eta Enpresa ekimenak" Saria

Honako hau dagokio:

- **Eibarko Udalaren Saria:** 10.500 €, eskudirutan.
- Bideragarritasun-azterlana, martxan jartzea eta ekimen berriaren garapenerako euskarri Programetara sarbidea **Euskadiko BICen** bidez, beraietan agertzen diren baldintzak betetzen direnean.
- Doaneko harpidetza **APDn**, urtebetez; horrek dakar:
APDek Eskualde guztietan antolatzen dituen jardunaldietara doaneko sarrera eta APDk Ipar-Eskualdean antolaturiko mintegi, ikastaro eta Executive mintegietarako sarrera harpide diren enpresentzat bezala. Era berean, marketin digitaleko (branding eta lead-ak geureganatzea) eta in Company prestakuntzako zerbitzuetarako sarbidea izango du elkarteak enpresa bazkideei eskaintzen dien heinean.
- **Gipuzkoako Bazkudearen Saria**, antolatzen dituen prestakuntza-ekintzetara, gehienez 100 orduz, doan joateko dena.

- **ELKARGI** Saria, 3 orduko finantza-aholkularitzako bi saio, enpresa irabazlearen beharren eta prestakuntza-ekintza finantzario baterako sarbidea ikastaroen eskaintzaren barruan.

“Enpresa berritzailea” Saria

Honako hau dagokio:

- **Eibarko Udalaren Saria: 10.500 €**, eskudirutan.
- Bideragarritasun-azterlana, martxan jartzea eta ekimen berriaren garapenerako euskarri Programetara sarbidea **Euskadiko BICen** bidez, beraietan agertzen diren baldintzak betetzen direnean.
- Doaneko harpidetza **APDn**, urtebetez; horrek dakar:
APDek Eskualde guztietan antolatzen dituen jardunaldietara doaneko sarrera eta APDk Ipar-Eskualdean antolaturiko mintegi, ikastaro eta Executive mintegietarako sarrera harpide diren enpresentzat bezala. Era berean, marketin digitaleko (branding eta lead-ak geureganatzea) eta in Company prestakuntzako zerbitzuetarako sarbidea izango du elkarteak enpresa bazkideei eskaintzen dien heinean.
- **Gipuzkoako Bazkudearen Saria**, antolatzen dituen prestakuntza-ekintzetara, gehienez 100 orduz, doan joateko dena.
- **ELKARGI** Saria, 3 orduko finantza-aholkularitzako bi saio, enpresa irabazlearen beharren eta prestakuntza-ekintza finantzario baterako sarbidea ikastaroen eskaintzaren barruan.
- Enpresa garailea kokatuta dagoen lurraldeari dagokion Enpresa Patronalaren saria:
 - **ADEGI** Saria, Fabrikako Coaching zerbitzuaren doako 6 saioez gozatzeko aukera ematen du, helburu profesionalak betetzen laguntzeko, baliabide eta trebetasun pertsonalak sustatuz, bai eta Ekintzaileen Forora eta ADEGIren jarduera eta aholkularitza orokor osora urtebetez doan atxikitzea ere.
 - **CEBEK** Saria: enpresa CEBEK Ekinean ekimeneko kide izatea, honek sortu berri diren enpresei zuzendutako ekimen zehatza eskeintzen ditu, eta aldi berean, CEBEKeko jarduera guztietan parte hartzea onartzen du.
 - **SEA** Saria: SEAKo Ekintzaileen Foroan kide izatea, honek sortu berri diren enpresei zuzendutako ekimen zehatza eskaintzen ditu, eta aldi berean, SEAKo jarduera guztietan parte hartzea onartzen du.

“Nazioartekotza babes” Saria

Honako hau dagokio:

- **SPRI taldeko Basque Trade & Investment**-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentzia) proiektu bat egingo du bere Kanpoko Sareak ordezkaritza duen merkatuetako batean sartzeko. Proiektu horretan, merkatu-azterketa bat egingo da edo/eta merkatu horretan izan daitezkeen bazkide komertzial, industrial edo teknologikoak bilatuko dira.

Oharrak:

Sari hontara aurkeztea hautazkoa da.

Saria ematen den urtean zehar martxan jarri behar da proiektua.

Proiektua burutzeko epea Basque Trade & Investment-ekin batera zehaztuko da, proiektua abian jarri aurretik.

Eibarko Udalaren Sari Bereziak

Eibarko Udalak, Eibarko hirian berrikuntza eta ekintzailletza berritzaile/teknologikoaren alde egiten duen apustuarekin jarraituz eta indartuz, bi sari berezi proposatu ditu aurtengo edizioan.

"Eibarko enpresa" saria

Epaimahaiaren ustez kalitate-maila – Berrikuntza-maila, merkatuarentzat balio argia duen proposamena, talde ekintzailearen konpromisoa eta inbertsiorako eta enplegua sortzeko potentziala dituen beste bi kategorietako batean aurkeztutako hautagai-zerrendetako bati emango zaio saria.

Honako hau dagokio:

- **Eibarko Udalaren** eskudiruzko saria: 10.500 €.
- **Bic Gipuzkoaren** bidez, ekintzaileentzako eta enpresa berrientzako prestakuntza espezializatua eskuratzea.

"Especializazio estrategikoa" saria

Beste bi kategorietako edozeinetan aurkeztutako hautagai-zerrendetako bati – Epaimahaiaren ustez kalitate-maila – Berrikuntza-maila, merkatuarentzat balio argia duen proposamena, talde ekintzailearen konpromisoa eta inbertitzeko eta enplegua sortzeko potentziala duenari – emango zaio saria.

Honako hau dagokio:

- **Eibarko Udalaren** eskudiruzko saria: 10.500 €.
- **Bic Gipuzkoaren** bidez, ekintzaileentzako eta enpresa berrientzako prestakuntza espezializatua eskuratzea.

Oharra:

Kategoria honetako Sariak beste bi kategorien osagarri dira, eta ez dira baztertzailleak; horietako edozein irabazten duen ekimen bati eman ahal izango zaizkio.

5.- Hautagaien balorazioa

Aurkeztutako proiektuak, erakunde sari-babesleen adituekin eratutako Batzorde Tekniko batek aztertuko ditu aurrenik.

Ondoren, aurreneko aukeraketa horretatik aterako diren proiektuak, oinarrien 8. atalean aipaturiko epai-mahaiak baloratuko ditu.

Baloratzeraoan, ondoko alderdi hauek oso kontuan hartuko dira:

- Ekintzaile/enpresa ekintzailearen profilaren eta enpresa-proiektuaren arteko koherentzia.
- Produktu/zerbitzuaren berrikuntza-maila eta bere bideragarritasuna merkatuan.
- Epe ertainean hazteko, aberastasuna eta lanpostu gaituak sortzeko aukerak.

5.- Dokumentazioa

Aurkezteko dokumentazioa sarien webgunean dago eskuragarri (www.toribioechevarria.com)

" Startupak eta Enpresa ekimenak" Saria

- **Laburpen exekutiboa**, bi orrialdekoa gehienez, asmo/proiektuaren balore nagusiak azalduko dituena.
- **Enpresa-plana**. Antolakuntzak emandako **Enpresa-Plan Eredua** erabil daiteke nahi izanez gero. Edozein modutan ere aurkeztuko den dokumentazioak ezingo du 40 orrialdetik gora izan. Proiektuaren ontze-mailak Enpresa-plana aurkezteko aukerarik ematen ez badu, sariaren antolakuntzak ematen duen **Enpresa Asmoen Galdetegia** bete beharko da
- Enpresaren eta talde ekintzailearen **laburpen historiko** laburra.

Beste dokumentu batzuk

Startupak:

- **Ekonomia Jardueren gaineko Zergan** alta
- Sozietate-aldaketen **eskriturak** eta, hala badagokio, eranskin eguneratuak
- **Ogasuneko eta GSKo** ordainketen kasuan legeak dioena betetzen dela aitortzen duen ziurtagiria

Enpresa ekimenak:

- **Erroldatze** ziurtagiria

"Enpresa berritzailea " Saria

- **Laburpen exekutiboa**, bi orrialdekoa gehienez, asmo/proiektuaren balore nagusiak azalduko dituena.
- **Enpresa-plana** Antolakuntzak (www.toribioechevarria.com) emandako **Enpresa-Plan Eredua** erabil daiteke nahi izanez gero. 40 orrialdekoa izango da, gehienez.
- Enpresaren eta talde ekintzailearen **laburpen historiko** laburra.
- **Ekonomia Jardueren gaineko Zergan** alta.
- Sozietate-aldaketen **eskriturak** eta, hala badagokio, eranskin eguneratuak.
- **Ogasuneko eta GSKo** ordainketen kasuan legeak dioena betetzen dela aitortzen duen ziurtagiria.

“Nazioartekotzeari Babesa” Saria

- **Nazioartekotzeari buruzko galdetegia** beteko da.

“Eibarko Udalaren sari bereziak

- Gainerako Sarien osagarri diren sari horiek jaso nahi dituzten ekimenak eskabidean jaso beharko dira
- Saria eskuratu nahi den kategorian eskatutako dokumentazio orokorraz gain, Eibarren kokatuta ez dauden proiektuen/enpresen kasuan, Eibarren kokatu beharreko ekimenaren interesa/konpromisoa jasotzen duen dokumentu idatzi bat aurkeztu beharko da.

6.- Kontutan hartzekoak

- Hauteslea enpresa bat bada aipatu Enpresak, hautatze-prozesu guztiaren kargu egingo den eta efektu guztietan bere ordezkari izango den pertsona fisikoa izendatuko du.
- “Startupak eta Enpresa ekimenak” Sarian, sustatzaile-talde batek jasoko balu sari hori, talde horrek pertsonaren bat izendatu behar du taldearen izenean aritzeko.
- Atal honetako lehen paragrafoan aipaturiko Galdetegiak gain, esan Epaimahaikideek egokitzen jotzen dituzten elkarrizketa pertsonal guztiak egin ditzaketela.
- Enpresa edo lantegiei dagokienez, sarian parte hartzeko izena ematerakoan enpresaren ordezkari izendatu denari egingo zaio elkarrizketa.
- Sariaren zenbatekoa jasotzeko, Herri Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean daudela egiaztatu behar da.
- Jasotako sariak, sari hau eta hurrengo edizioaren deialdia bitarteko epean gauzatu/bete behar dira
- Aurkeztutako proiektuak edo asmoak Epaimahaikideek isiltasun osoan gordeko dituzte.
- Hedabideei dagokienez, partehartzaileek hartzen duten konpromiso bakarra hau da: asmoaren edo proiektuaren izena eta proiektu edo asmo hori bultzatu duen enpresaren edo sustatzailearen izena ezagutzera ematea. Finalera iritsitako asmo edo proiektuen kasuan –hedabideen aldetik oihartzun handiagoa eskura dezaketenak- bakoitzarekin egon eta erabakiko da goian esandako horretatik zer den jendearen aurrean zabaldu behar dena.
- Parte hartzen duena bera da aurkeztutako agiri horietan esan duenaren egiazkotasunaren erantzule bakarra; Saria ematen duten erakundeak inondik inora ere ez daude derrigortuak hor esandakoak egi ala gezur diren aztertzeraz edo egiaztatzeraz, baina hala ere, hala egitea beharrezkotzat edo komenigarritzat joko balute, aukera dute hori egiteko.
- Onuradun izateko hautagarritasuna bermatzeko aurkeztutako dokumentu guztiak bat datozela erakundeak dituen jatorrizko dokumentuekin.
- Saria ematen duten erakundeek ez lukete inongo erantzukizunik aurkeztutako asmoak ustiatzeko proposatzen denak edo parte hartzaileak aurkeztutako edozein agirik beste inoren eskubideak modu batean edo bestean urratuko balitu, hau da, jabego intelektualaren, industria-jabegoaren edo beste edozein motatako jabegoren eskubideak urratuz gero.

7.- Lanak aurkezteko epea eta izen ematea

- Hautagaitzak aurkezteko epea **2024ko maitzaren 16ean, arratsaldeko 3ak baino lehen.**
- Hautagaitzak honela erregistratuko dira: www.toribioechevarria.com

8.- Epaimahaikideak

- EUSKO JAURLARITZA - Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
- GIPUZKOAKO ALDUNDIA - Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua
- EIBARKO UDALA - Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza Departamentua
- SPRI
- GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
- ELKARGI
- APD
- DEBEGESA
- UPV/EHU
- CONFEBASK
- ADEGI
- BIC GIPUZKOA